

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 130/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onespena ematea abenduaren 27ko 828/2019 Erabakiaren hutsen zuzenketari. Erabaki horren bidez, onspena ematen zaio Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2019rako laugarren enplegu publikoaren eskaintzari**

Abenduaren 27ko 828/2019 Erabakiaren bidez (ALHAOn argitaratu zen, 149. zk., abenduaren 30ean), onspena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2019rako laugarren enplegu publikoaren eskaintzari.

Hutsa nabaritu da erabaki horren eranskinean. Hau da, administrazio orokorreko erdi-mailako teknikari plazei oker esleitu zaie 11 eskalako kodea (administrazio orokorreko eskala, teknikarien azpieskala). Kode hori, lanpostu zerrendako literalen taulan ezartzen denez, administrazio orokorreko eskalako teknikarien azpieskalari dagokio, zeinean kokaturik baitaude lanbide sailkapenaren A taldeko A1 azpitaldeko plazak, eta horietara sartzeko beharrezkoa da lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua, gradua edo gradua gehi masterra edukitzea.

Hala ere, enplegu eskaintza horren barruan jasotako Ogasuneko erdi mailako teknikarien plazak administrazio orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalakoak dira, eta haietara sartzeko eskatzen da lanbide sailkapenaren A taldeko A2 azpitaldeari dagokion titulazio maila (ingeniaritza tekniko, unibertsitate diploma, arkitektura tekniko edo balio bereko gradua). Horregatik, islatu behar den kodea 15 da, indarrean dagoen lanpostu zerrendarekin bat etorritik.

Beste alde batetik, eranskinaren beheko aldean ageri den "Eskalen kodeak" apartatuan eskala kode zuzena ere jarri behar da aurrekoaren ordez, dagokion deskribapenarekin.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109.2 artikuluan dio administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Aztertu dugu Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Arauan ezarritakoarekin bat etorritik emandako 202/2020 ekonomia eta araudi txostena.

Bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta bat etorritik ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoarekin: Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua -Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretuak aldatua-, Funtzio Publikoaren Arloko Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, eta funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua. Horiek horrela,

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Zuzentzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 828/2019 Erabakiaren eranskinean antzemandako huts materiala (ALHAOn argitaratu zen, 149. zk., abenduaren 30ean), honela:

– Plaza: Administrazio Orokorreko erdi-mailako teknikaria.

“Eskala, azpieskala eta klasea” zutabean, “11” esan beharrean, “15” esan behar du.

– Eskalaren kodeak.

“11: ADMINISTRAZIO OROKORRA-TEKNIKARIAK” esan beharrean, “15: ADMINISTRAZIO OROKORRA-KUDEATZAILEAK” esan behar du.

Bigarrena. Erabaki hau argitaratzea ALHAOn, eta haren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 3a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

**ADOLFO LANDER VERA**